



Tartalo. The VII International Conference on Myth in the Arts

Konferentziaren helburua eztabaida-leku bat sortzea da, zeinak fantasiazkoak arteetan duen lekua eta fantasiazkoaren XXI. mendeko berrinterpretazioak aztertzeko aukera eskainiko duen. Honetaz gain, mito zahar, klasiko, moderno eta garaikideak arlo artistiko askotan—literatura, musika, zinea, arte performatiboa edo hedabide birtualak, esaterako—eta ikuspuntu teoriko ugaritatik—Kultur Ikasketak, Literatura Ikasketak, Genero Ikasketak, Feminismoa/k, Maskulinitateak, LGTBQ+ Ikasketak, Ikasketa Poskolonialak, Ekokritika, Ezgaitasun Ikasketak, Zine Ikasketak, Ikasketa Performatiboak, besteak beste— esploratu ahalko dira. Ekitaldiak nazioarteko adituen irekiera hitzaldiak eskainiko ditu mito zahar eta berrien erabilera, subertsio eta erre/produzioak kultur komunikazio eta espresio artistikoaren arloan duten balioaren inguruan.

Parte-hartzea

Komunikazio egutegia

Komunikazioak bidaltzea	2023ko maiatzaren 2a arte
Komunikazioen ebaluazioa	2023ko maiatzaren 14a arte
Kongresuan izen-ematea	2023ko maiatzaren 15etik ekainaren 30era
Kongresuan izen-emate berantiarra	2023ko uztailaren 1etik irailaren 15era
Komunikazioen aurkezpena	2023ko azaroaren 7tik 10era

Komunikazioak bidaltzea

Bidali komunikazio bakoitzaren laburpena ingelesez (200 hitz gehienez), titulu, autore eta hitz-gakoekin batera (ikus “Aurkezpen moduak”) myth@tartalogasteiz.com-era.

Komunikazioen aurkezpena

Onartutako komunikazio bakoitzeko, gutxienez, autore batek eman behar du izena kongresuan. Ingelesezko, gaztelerazko eta euskarazko komunikazioak onartuko dira.

Argitalpenak

Argitalpen bat edo gehiago sortuko dira. Laburpen guztiak kongresuaren web-orrian agertuko dira.

Antolakuntza

REWEST, AKMEKA, MHLI (Euskadiko unibertsitate sisteman finkatutako ikerketa taldeak), Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitatea.

Informazio gehiago

<https://tartalogasteiz.com/es/convocatoria>